

## EGITARAUA • PROGRAMA

AVE MARIA  
SONATA SOL MINORREN (Adagio, Allegro, Vivace)  
SONATA SOL MENOR (Adagio, Allegro, Vivace)  
PONTUS ETA SIDONIA  
PONTUS Y SIDONIA  
PASSACAGLIA DEL BALLETO  
SONATA LA MINORREN (Siciliana, Spirituoso, Andante, Vivace)  
SONATA EN LA MENOR (Siciliana, Spirituoso, Andante, Vivace)  
LASCIA CH'IO PIANGA  
ROMANESCA, GUÁRDAME LAS VACAS  
  
SONATA SOL MINORREN (Larghetto, Allegro, Adagio, Allegro)  
SONATA EN SOL MENOR (Larghetto, Allegro, Adagio, Allegro)  
V'ADORO PUPILLE  
ARPARAKO SONATA SOL MAIORREN (Adagio)  
SONATA PARA ARPA EN SOL MAYOR (Adagio)  
LAU URTAROAK, NEGUA, LA PIOGGIA  
LAS CUATRO ESTACIONES, INVIERNO, LA PIOGGIA  
FOLIAS D'ESPAGNE LANEAN EGINDAKO ALDAKETAK  
VARIACIONES SOBRE FOLIAS D'ESPAGNE

G. CACCINI  
C.P.E. BACH  
G. B. PERGOLES  
G. FRESCOBALDI  
G. P. TELEMANN  
G. F. HÄNDEL  
ANONIMOA /  
ANÓNIMO  
G.F. HÄNDEL  
G.F. HÄNDEL  
C.P.E. BACH  
A. VIVALDI  
LAN HERRIKOIA  
TEMA POPULAR

# Musika klasikoa Música clásica

## 2018



## DUO L'INCONTRO KANPEZU CAMPEZO

abuztua **11** agosto

**20:00**

Jasokundeko Andra Mariaren eliza  
Iglesia de la Asunción de Nuestra Señora



# DUO L'INCONTRO

**ITZIAR LUJANBIO**

**OBOEA / OBOE**

**FRANCESCA ROMANA  
DI NICOLA**

**HARPA / ARPA**

El dúo está formado por la arpista italiana Francesca Romana di Nicola y la oboísta donostiarra Itziar Lujambio. Se conocieron cursando los estudios de Grado Superior en Musikene, San Sebastián. Después de esta etapa cada una siguió su camino. Itziar se mudó a Colonia, donde continuó formándose y Francesca ha ampliado su experiencia profesional participando tanto en orquestas nacionales como internacionales.

Después de tres años se vuelven a encontrar para compartir todo lo aprendido, enriquecerse y desarrollar un amplio repertorio.

Entre sus actuaciones por el País Vasco y Francia destacan los conciertos ofrecidos en el Ciclo de Música Sacra de San Sebastián, el festival de Toulouse Passe ton Bach d'abord, el Ciclo Barroco Aire de Ordicia, el XXVII Ciclo Musical de Primavera de Azkoitia y en las Cuevas de Sara junto al trío de Iparralde Kalakan. Con esta agrupación tienen un proyecto en común, donde mezclan el mundo de la música clásica y la música tradicional vasca. Además de ofrecer conciertos acaban de publicar el álbum Lamin.

## **ITZIAR LUJANBIO, OBOE**

Nacida en San Sebastián, realiza los estudios de oboe de Grado Medio en el Conservatorio Francisco Escudero de San Sebastián y los de Grado Superior en Musikene, Centro Superior de Música del País Vasco, con los profesores de renombre como Juan Manuel Lumbreras, Manuel Angulo, Alexey Ogrintchouk y Christian Wetzel. Perfecciona sus estudios de oboe, becada por la Diputación Foral de Guipúzcoa, en el conservatorio Hochschule für Musik und Tanz Köln (Colonia, Alemania), con el profesor Christian Wetzel, obteniendo el máster de solista y música de cámara en 2013. También ha recibido masterclass de Ingo Gorintzki y Thomas Indermühle.

Ha sido miembro de la Joven Orquesta de Euskadi habiendo actuado como solista en la gira de 2010. Participe en diversas ocasiones como solista de la orquesta del Conservatorio Francisco Escudero. Ha colaborado con la Orquesta de Euskadi, Orquesta Sinfónica de Navarra Pablo Sarasate, Klassische Phillharmonie Bonn, la orquesta italiana Spira Mirabilis, dando conciertos en Turquía, Alemania, Bélgica, Suiza e Italia y como solista con la Orquesta Arimaz en el ciclo musical Barroco Aire de Ordizia. Es miembro de Xare Laborategia desde su inicio en 2009.

Acaba de publicar el álbum Begiradak junto al pianista Iñar Sastre, donde se recogen obras para piano y oboe de compositores vascos.

## **FRANCESCA ROMANA DI NICOLA, ARPA**

Nacida en Rieti, Italia, se gradúa en arpa en el Conservatorio Superior A. Casella de L'Aquila con matrícula de honor en interpretación solística. Perfecciona los estudios musicales con Fabrice Pierre, Anna Loro, E. Fontane Binoche, Judith Liber, Marie-Pierre Langlamet y Frederique Cambreling. También estudia arpa celta y paraguaya en la Fundación Arts Academy en Roma. En 2005 consigue una beca en España en el Conservatorio Superior de Música del País Vasco, Musikene y se gradúa en arpa bajo la guía de Frederique Cambreling y Christine Icart. En 2006 gana una beca en la Academia de Orquesta del Teatro Maggio Musicale Fiorentino en Florencia, bajo la dirección del Zubin Mehta.

Durante su carrera profesional colabora con orquestas de renombre como la Orquesta Sinfónica de Siria, la Officina Musicale Italiana, la Orquesta Sinfónica di Pescara, la Orquesta Filarmónica de Oviedo, el Ensemble de Música Contemporánea Zahir de Sevilla, la Orquesta Sinfónica de Euskadi, la Orquesta Sinfónica de Bilbao, la Orquesta de Pau y del País del Bearne, la Orchestra Regionale Umbra en Italia, la orquesta alemana Das neue Orchester y el Ensemble Intercontemporain de París. Con esta última agrupación participa en una gira europea bajo la dirección del Maestro Pierre Boulez, exhibiéndose en prestigiosas salas de concierto como el KKL de Lucerna, la Salle Pleyel de París, el Prinzenregententheater de Mónaco de Baviera, el Concertgebouw de Amsterdam, el Royal Festival Hall de Londres.



Duoa Francesca Romana di Nicola italiar harpistak eta Itziar Lujambio donostiar oboistak osatzen dute. Musikenen, Donostian, ezagutu ziren goi mailako ikasketak egiten ari ziren bitartean. Etapa horren ondoren bakoitzak bere bidearekin jarraitu zuen. Itziar Koloniara joan zen eta bertan ikasten jarraitu zuen, eta Francescak bere esperientzia profesionala handitu zuen nazio mailako eta nazioarteko orkestratan parte hartuz.

Hiru urte igaro ondoren berriz ere elkartu ziren ikasitako guztia elkarrekin partekatzeko, elkarrengandik aberasteko eta erreperitorio zabala garatzeko.

Euskadin eta Frantziaren egindako ikuskizunen artean nabarmentzekoak dira Donostiako Musika Sakroaren Zikloan emandako kontzertua, Tolosako (Frantzia) Passe ton Bach d'abord jaialdian emandakoa, Ordiziako Barroco Aire ziklokoa, Azkoitia XXVII. Udaberri Musikal Ziklokoa eta Sarako kobazuloetan eman zutena, iparraldeko Kalakan hirukotearekin batera. Talde horrekin proiektu bat ere badute, non musika klasikoa eta euskal musika tradizionala uztartzen dituzten. Kontzertuak emateaz gain, Lamin izeneko lana argitaratu berri dute.

## **ITZIAR LUJANBIO, OBOEA**

Donostian jaio zen eta erdi mailako oboe ikasketak egin zituen Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioan, eta goi mailako ikasketak Musikenen, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian, irakasle ospetsuekin, besteak beste Juan Manuel Lumbreras-ekin, Manuel Angulo-ekin, Alexey Ogrintchouk-ekin eta Christian Wetzel-ekin. Oboe ikasketak perfektionatu zituen Gipuzkoako Foru Aldundiaren beka batekin Koloniako (Alemania) Hochschule für Musik und Tanz Köln kontserbatorioan Christian Wetzel irakaslearekin, eta bertan, bakarlarri eta ganbera musikako masterra lortu zuen 2013an. Ingo Gorintzki-ren eta Thomas Indermühle-ren masterclass-ak ere jaso ditu baita ere.

Euskal Herriko Gazte Orkestrako kide izan zen eta bakarlarri bezala jardun zuen 2010eko biran. Francisco Escudero Kontserbatorioko orkestrako bakarlarri bezala ere lan egin du hainbatetan. Euskadiko Orkestrarekin, Pablo Sarasate Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin, Klassische Phillharmonie Bonn orkestrarekin eta Spira Mirabilis italiar orkestrarekin lan egin du, eta kontzertuak eman ditu Turkian, Alemanian, Belgikan, Suitzan eta Italian, eta bakarlarri bezala Arimaz Orkestran lan egin zuen Ordiziako Barroco Aire musika zikloan. Xare Laborategiko kidea da, 2009an sortu zenetik.

Begiradak izeneko lana argitaratu berri du Iñar Sastre pianistarekin batera, eta bertan euskal konpositoreen lanak daude jasota, pianorako eta oboerako hain zuzen ere.

## **FRANCESCA ROMANA DI NICOLA, HARPA**

Rieti-n (Italia) jaio zen eta arpako gradua lortu zuen A. Casella de L'Aquila Goi Mailako Kontserbatorioan, bakarkako interpretazioan ohorezko matrikula lortu zuelarik. Musika ikasketak perfektionatu zituen hauekin batera: Fabrice Pierre, Anna Loro, E. Fontane Binoche, Judith Liber, Marie-Pierre Langlamet eta Frederique Cambreling. Arpa zelta eta arpa paraguayatarra ere ikasi zituen Romako Arts Academy Fundazioan. 2005ean beka bat lortu zuen Espainian, Musikenen, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian, eta arpan graduatu zen Frederique Cambreling-ek eta Christine Icart-ek gidatu zutelarik. 2006an beka bat lortu zuen Florentziako Maggio Musicale Fiorentino Antzokiko Orkestra Akademian, Zubin Mehta-ren zuzendaritzapean.

Bere ibilbide profesionalean orkestra ospetsuetan lan egin du, besteak beste Siriako Orkestra Sinfonikoan, Italiako Officina Musicale-n, di Pescara Orkestra Sinfonikoan, Oviedoko Orkestra Sinfonikoan, Sevillako Zahir Musika Garaikideko Ensemble-an, Euskadiko Orkestra Sinfonikoan, Bilboko Orkestra Sinfonikoan, Pau-ko eta Bearne herrialdeko orkestran, Italiako Orchestra Regionale Umbra-n, Alemaniako Das neue Orchester orkestran eta Parisko Ensemble Intercontemporain-en. Azken talde horrekin bira bat egin zuen Europan zehar Pierre Boulez maisuarekin batera kontzertu areto ospetsuetan lan eginez, besteak beste Luzernako KKL-en, Parisko Salle Pleyel-en, Bavariako Monakoko Prinzenregententheater-en, Amsterdamgo Concertgebouw-en, eta Londresko Royal Festival Hall-en.